

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Oñatiko XVII. Erakusleiko Lehiaketaren saridunak onartzea. (2024ZDK00030)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 2023ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran onartu zituen XVI. Erakusleiko Lehiaketaren oinarriak eta akordio hori Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zen 2023ko azaroaren 3an (212 zb.).

Bigarrena.- 2024ko urriaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean 2023an onartutako oinarriak mantentzea eta XVII. Erakusleiko Lehiaketaren deialdia onartzea erabaki zen. Akordioa Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zen 2024ko urriaren 25ean. (207 zb.).

Hirugarrena.- Izena emateko epea amaitu ostean, guztira 23 saltokik eman dute izena lehiaketan parte hartzeko.

Laugarrena.- Erakusleiko Lehiaketaren oinarrien arabera lehenengo, bigarren eta hirugarren sariak epaimahaiak aukeratu ditu. Epaimahai hau 3 kidez osatuta egon da eta oinarrien 3. eta 6. puntuan ezarritakoaren arabera, erakusleihoen balorazioa egiterakoan alde batetik, saltokiaren estrategia komertziala; hau da, saldutako produktuek erakusleihorekin daukaten erlazioa baloratu da. Bestalde epaimahaiak kontutan izan dituen irizpideak konposizioa, argiztapena, koloreak, eta originaltasuna izan dira. Eta azkenik balorazio orokorra ere hartu da kontuan.

Bosgarrena.- Lehenengo, bigarren eta hirugarren sariak aukeratzeko epaimahaia 2024ko abenduaren 12an bildu zen, saltokiz-saltoki erakusleiko guztien balorazioa egin ostean epaimahaikideen puntuazioa jasota geratu da aktan.

Seigarrena.- Herritarren sariari dagokionez, Oñatiko herritarren bozketa bidez aukeratu da, bozka gehien jaso dituen saltokia izendatuz sari honen irabazlea.

Zazpigarrena.- Haurren sariari dagokionez, Oñatiko 5 eta 12 bitarteko haurren bozketa bidez aukeratu da, bozka gehien jaso dituen saltokia izendatuz sari honen irabazlea.

Hona hemen azaldutako **aurrekariaren balorazioa**:

Lehenengoa.- Epaimahaia osatu duten 3 kideen puntuazioa kontuan hartuta hauek lirateke Oñatiko XVII. Erakusleiko Lehiaketaren saridunak:

- Lehenengo saria: Txokolateixia.
- Bigarren saria: Barue Interiorismoa.
- Hirugarren saria: Andrea Azkoaga Interiorista.

Bigarrena.- Herritarren sariaren aukeraketa internet bidez burutu da, 2024ko abenduaren 9tik 2024ko abenduak 18ko, eguerdiko 14:00ak arteko epean. Guztira 856 bozka jaso dira baina horietatik 17 baliogabetu dira; 14 bozka behin baino gehiagotan bozkatu duten pertsonak izan direlako eta kasu hauetan lehenengo botoa hartu da bakarrik kontuan eta beste 3 bozka telefono zenbakia ez delako zuzena. Horrela beraz, 839 bozka eman dira ontzat eta guztiak batuta Kimu-Urtxin lora-dendak jaso ditu bozka gehien, guztira 204 bozka, botoen %24.

Hirugarrena.- Haurren sariaren aukeraketa 5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko hurrek parte hartu dute. Txaloka ludotekan eta Gaztelekuko Kuboan jarri dira botoa emateko hautestontziak eta abenduko Kontzejupetik aldizkarian banatutako bozka orrien bidez bozkatu da, 2024ko abenduaren 9tik 2024ko abenduak 18ko, eguerdiko 14:00ak arteko epean. Guztira 23 bozka jaso dira eta horietatik 5 baliogabetu dira haur batek 6 aldiz bozkatu duelako. Ondorioz, 18 bozka eman dira ontzat eta bozkatuen izan den saltokia Txokolateixia izan da; guztira 6 bozka jaso ditu, boto guztien %33.

Horrenbestez, udal teknikariak honako **erabaki proposamena** egiten du:

- Epaimahaiak egindako balorazioa onestea, saltoki parte-hartzaileei emandako puntuazioak eta saridunak onartuz.
- Herritarren saria eta haurren sariak hautatzeko bozketa prozesuak onestea, herritarrek eta hurrek emandako botoak eta saridunak onartuz"

Horregatik guztiagatik, epaimahairen balorazioa eta teknikariaren proposamena ikusirik, nik, Iزارo Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Epaimahaiak egindako balorazioa onestea, saltoki parte-hartzaileei emandako puntuazioak onartuz.

Bigarrena.- Herritarren saria eta haurren sariak hautatzeko bozketa prozesuak onestea, herritarrek eta hurrek emandako botoak onartuz.

Hirugarrena.- Txokolateixia izendatzea lehenengo sariaren irabazlea eta beraz, Elizabete Astigarraga Pagoaga y otra CB ondasun erkideagoari 500€ko dirulaguntza onartzea.

Laugarrena.- Barue Interiorismoa izendatzea bigarren sariaren irabazlea eta Barue Interiorismoa S.L enpresari 300€ko dirulaguntza onartzea.

Bosgarrena.- Andrea Azkoaga Interiorista izendatzea hirugarren sariaren irabazlea eta Azkor Barne Arkitektura, S.L. enpresari 200€ko dirulaguntza onartzea.

Seigarrena.- Kimu-Urtxin loradenda izendatzea herritarren sariaren irabazlea eta Ivan Barrigon Lopezi 500€ko dirulaguntza ematea onartzea.

Zazpigarrena.- Txokolateixia izendatzea haurren sariaren irabazlea Elizabete Astigarraga Pagoaga y otra CB ondasun erkideagoari 300€ko dirulaguntza ematea onartzea.

Zortzigarrena.- 1.800 euroko gastua onartzea eta udal aurrekontuen 1 1000.480.241.06.01 2024 (5655) diru ataletik eta bere lotespen mailatik saltoki bakoitzari dagozkion sarien ordainketak agintzea.

Bederatzigarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Hamargarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Hamaikagarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitetza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2024ko abenduaren 18a


Alkatea

OÑATIKO UDALA
Izaro Etorza Arregui